

647/2025 EBAZPENA, maiatzaren 5ekoa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen martxoaren 3ko 394/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko Buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 14ko EHAA 51 zk. eta 2025eko martxoaren 22ko EAO 70 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko irailaren 11n amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzuko (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko Buru izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea (l. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Araba Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 5a.

Araba Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,
ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ

Osakidetza ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA
KUDEKARETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

I. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETA ZERBITZUKO (MINAREN UNITATEA) ATAL SANITARIOKO BURU IZENeko LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- María Belén Beltrán de Heredia Pérez de Villarreal and.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.